



Saioa AGINAKO LAMARAIN
Psikoterapeuta

Esfortzuaren falazia

Saia zaitez! Dena eman behar duzu; ez amore eman, pentsa nahi duzuna lor dezakezula ahalik eta gehien emanez gero! Zenbat aldiz entzun ditugu esamolde horiek? Are gehiago, esan ez ezik, egunero irakurri ere egiten ditugu sare sozialetan eta antzeko mezuak dituzten kikaretan ere kafea hartzen dugu.

Ideologia edo pentsamendu meritokratikoa mundua bidezkoa den eta bakoitzak merezi duena jasotzen duen ustea da. Oso sineste hedatua da, eta gure ekintzak eta gainerakoei egunerokoan gertatzen zaizkienak justifikatzeko erabiltzen dugu. Uste horren arabera, “hazkuntza soziala” (hazkuntza ekonomikoari lotua) hobetzea, mundu guztia gizartean “gora” irits dadin, pertsonen trebetasunak hobetzea bezain erraza da.

Baina meritokrazia boterearen abantaila sozial eta ekonomikoei eusteko erabiltzen da. Lehiakortasunaren ideiarengatik inguruan antolatutako gizarte batean murgilduta gaude. Zenbat balio dugun frogatu behar dugu, ahalik eta gehien saiatuz, eta hori egiten dugu, batzuetan atsedean hartzeak errudun sentiarazita ere. Estatu bat meritokratikoa den ustea badago, hori horrela ez denean, “gauza handiak” lortzen ez dituztenak alferrikakotzat joko dira, behar adinako ahalegina ez egiteagatik akusatuta, edo adimen baxua esleituko zaie.

Justua den sistema batean bizi gara? Egia esan, askoz faktore gehiago daude, eta horietako batzuk ausazkoak dira, hala nola non jaiotzen garen edo hazten garen familiaren baitan, une honetan bizi dugun errealitatea eta aurretik aurkezten zaigun «bidea»

baldintzatzen dutenak. Ahaleginaren kulturak, ia konturatu gabe, izaki frustratu eta zorigaiztoko bihurtu gaitu. Hori sentitzen du bere ikasketekin bat datorren lanposturik lortu gabe urte asko eman dituenak.

Gure bizitzaren zati handi bat merituak egiten saiatzen pasatzen dugu, inora iritsi gabe. Populazio nekatua eta, askotan, nahigabetua gara. Behar adina ahalegintzen bazara guztiok aukera berak ditugula sinetsarazten digute, gizarteak guztioi aukera berberak eskaintzen dizkigula. Botereak gehien erabiltzen duen diskurtsoa da gizarte honen muturreko injustizia soziala ezkutatzeko eta erreproduzitzen jarraitzeko. Mezua ahalegintzen jarraitu behar dugula da, bestela ez garela inora iritsiko. Gainera, bakarrik egiteko esaten digute; izan ere, beste batzuekin egiten badugu, baliteke gure ahalegina aprobetxatzea eta aukerak kentzea. Ahalegintzen bagara eta funtzionatzen ez badu, aukera berriak eskainiko dizkiguten beste herrialde batzuetara joan gaitezke bizitzera.

Egia esan, gure emaitzak ez daude beti horiek lortzeko egiten dugun ahaleginaren menpe. Hori esaten digun kulturak boterearen menpeko esklabo izateko prestatzen gaitu, geure buruarentzat ahalegintzen garela sinetsaraziz, onurarik handiena merkatu kapitalistaren ekoizpen eta kontsumo bitartekoen jabeentzat den arren. Horregatik sortzen du hainbeste frustrazio, erruduntasun eta sufrimendu.

Inork ez du esan eguneroko bizitzan ahalegintzea beharrezkoa ez denik, baina bada ahalegin bat menperatuak izatera garamatzana, gainera inposatzen digutena, eta beste bat besteekin aske izateko, bizi nahi duguna izanik eta biziz, guztiz bestelako gizarte batean. •

saioaaginako@gmail.com



Ahaleginaren kulturak izaki frustratu bihurtu gaitu. Alexei VEPREV | GETTY